

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko otsailak 19 / III. urtea / 63. zenbakia

Amen eta omen



JOXE LACALLE/OSKAR MONTERO

Udal Ikastola: gatazka baten historia

Pasa den asteazkenean hamabost urteko aldia itxi zela esango zuen baten batek, Axular Ikastolako haurrak Eunete ikastetxean goizeko bederatzietan sartu zirenean. Izan ere, hor hasi baitzuen bere ibilbidea 1978an Iruñeko Udal Ikastolak, gogo bizian eta itxaropentsu. Hasierak izan ziren zoriontsuenak, orduko udalarekin nahiko harreman onak lortu baitzituen Iruñeko Udal Ikastolak, baina ondoren Nafarroan euskal eskola publikoa aurrera eramateko saio honen ibilbidea benetan

zaila eta zalapartatsua suertatu da.

Hiru ikastetxetan banatu ondoren ere, ibilbideak bateraturik iraun zuen, baina iaztik hona hiru ikastetxeren —Axular, Amaiur eta Hegoalde— arteko autonomia gero eta nabariagoa egin da, oraindik amankomunak diren gaietan elkarlana izanda ere. Horretan eragina izan du azken urteotako eztabaidak, bai pedagogia aldetik nola ikastolaren beraren etorkizunerako eman beharreko urratsak eta norabidea dela eta.



AINGERU EPALTZA

Aginako hilarriaren bizkar sortu eta oraino itzali gabe iduri duen kulebroiak dituen alderdi eztabaidagarri aunitzen artean —zerk bilakatzen du halako baten eromena 'geniala'? zerk bertzearena 'zakarra' eta 'in-presentablea'?— nafar artista gehien jarrera izan da neretako txundigarriena.

Ibarrolaren eskulturak Gasteizen pairatu zuen erasoak eta Azpiazuk Ataundik Lesakara —eta buelta— egin omen dituen ibilaldi suntsikorrek, gogoeta egiteko egokiera eman zuen Endarlatsaz harata. Artelanaren balioaz, erakundearen kultur politikaz, artista-aren menpekotasunaz boterearekiko etab., etab. zozokeria bat baino gehiago aditu eta irakurri ahal izan dugu Euskadin egiten diren komunikabideetan, baina baita gauza interesgarri franko ere. Horren aldean, gaitzespena eta aldekatasuna adierazteko proklama bat edo bertez kenduta, isiltasuna nagusi izan dugu Nafarroako kulturaren munduan. Aginako mailukadek ez bide diete hemengo sortzaileei gauza haundirik iradoki.

Ez dugu Amerika deskubrituko, Elkarte Autonomoko gertakariak —eta Gasteizkoa hala zen— 'suzesoetako' orrialdeetatik aparte hemen biltzen duten gero eta oihartzun apalagoa oroitarazten badugu. Lojika hori bera erabilirik, bada, noski, Lesakako Aginan gertatzen Nafarroan bizi bai baina, finean, hemengoak ez diren bi giputzen arteko kontu garbiketa hutsa baino funtsezkoagorik ikusiko ez duen forupitorik. Hala ere, hori dena arazoaren alderdi bat bertzerik ez da.

Konparatzen direlarik Guggenheim museoaren proiektuak Baskongadetan piztu duen zalapartak eta hemengo zenbaitek —denbora guttiren buruan Iruñean zabalduko den Planetariumak, adibidez— sortarazi duten erantzun eta aurkakotasun apala, hurbilago gaude, nik uste, afera zertan den ulertzetik.

Hemen ez dugu gure auzoek adina langabezia. Hala ere, kasik hori bezain arriskugarria da gogoeta egiteko gaitasun falta Nafarroako kultur gizon eta emakumeetan. Hori bezain lazarria, aunitzek botere bazka-banatzailearen aitzinean erakusten duten otzantasun isila.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Koldobika Jauregi artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Kribia galerian, martxoaren 6a arte. Gipuzkoako artistaren eskulturak lan egunetan arratsaldean eta jai egunetan goizez ikus daitezke Goroabe kaleko aretoan.

Javier Zudaire pintorearen lanen erakusketa zabalik dago Tafallako Kultur Etxeko erakusketa aretoan, martxoaren 3a arte. Tafallako artista honen lanak ohizko orduetan ikus daitezke.

Columna Villarroya artistaren erakusketa zabalik dago Korellan otsailaren 28a arte. Darocan jaiotako artista honen lanak, argazkiak gehienak, Estatuko probintzi askotan egon ondoren, Nafarroara heldu dira.

Itziar Purroy artistaren erakusketa zabalik dago datorren 21a arte. Margolari honen lanak ikusteko Lankide Aurrezki kutxak Sarasate ibilbidean duen aretoa jo behar da.

IKASTAROAK




Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo Udalak anto-

Asteburu honetarako ibilbidea Basaburuan zehar mugitzen da, Larraun, Ultzama, Imotz eta Leizaldearen tartean, hain zuzen ere. Haran honetan —haran baino muinoz eta zuhaitzez betetako lautada— behiak eta basoak izan dira betidaniko bizibide eta ingurua, baina egun franko hondaturik dago alde horretatik.

Orokietatik atera eta olaren bitartek izen berbera duen auzora helduko gara. Egund geldirik dago, baina garai batean burdina eta kobrea lantzen zuten bertan. Unzubieta zuen izena, baina 1847an Orokieta deitzen zioten dagoeneko, eta Juan Manuel Irizarren ardurapean zegoen. Hortik pista hartu behar dugu, Igoarako bidean, eta bidea pagadi eta hariztien artean ibiliko da. Ez dira oso baso trinkoak, eta tartekatuak daude beste espezieekin. Oraindik aurki daitezke gaztainondo ederrak, behiala oso ugariak alde honetan.

laturik. Ordutegia 9,30etatik 13,30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatik, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialik 6.700 pezetatik eta materialik gabe 4.800etan.



Igoara heldu ondoren, errepedea hartuko dugu, Aizarotzeraino jaisteko. Hortik zeharkatuko ditugu birlantatutako pinudiak, hagin banaka batzuekin nahastu-

rik. Halaber, Japoniako laritzak, Monterreiko pinuak eta Lawsoneko nekostak aurkitu daitezke. Aizaroztik bueltan Orokietaraino helduko gara berriro.

eta martxoak 7. Egunean lau orduko ikastaroak izanen dira, fondoko eskikoak, eta bazkideentzat 4.500 eta 5.200 pezeta bitartean kostako dira. Bazkide ez direnentzat, 5.500 eta 6.200 pezeta bitartean.

Español zineman. Bertako Kultur Patronatuak antolatutako, bi saio izanen dira, arratsaldeko 20.00etan bata eta gaueko 10.30etan bestea. Sarrerak 175 pezeta salduko dituzte.

ZINEMA



'Engañada' izeneko pelikula eskainiko dute datorren ostegunetan, otsailak 25, Tafallako

MENDI IRTEERAK



Igal gaina-Coronas Mendatea mendia ibilaldia antolatu du igande honetarako, otsailak 21, Nafarroa Kirol Elkarteak. Interesdunek Elkarteak Jarauta ka-

lean duen egoitzara jo behar dute, arratsaldeko 7etatik 9etara.

Lokiz Mendizerra mendira ibilaldi bat antolatu du Irurtzungo Iratxo Mendi Elkarteak igandean honetarako, otsailak 21. Goiz-goizetik atera eta egun oso-rako izanen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Iratxo elkartera deitu behar da, 50 08 82 telefonora.

BERTSO SAIOAK



Andoni Egaña, Mañukorta eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak ariko dira gaur, otsailak 19, Azpilkueta herrian. Bertso afari hau gaueko 21.00etan hasiko da.

Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak ariko dira datorren asteartean, otsailak 23, Goizuetan. Inauteriak direla eta, bertso afaria antolatu dute, gaueko 21.00etan hasita.

BESTELAKOAK



'Himalayen ertza: Nanga Parbat' gaiari buruzko diapositiben emanaldia antolatu du Nafarroa Kirol Elkarteak gaur gaue-rako, otsailak 19, Jarauta kaleko egoitzan. Emanaldia arratsaldeko 20.00etan izanen da, eta Mari Abregok zuzenduko du, berak egin baitu muntaia.

ERRAN DUTE

Egun 3.500 intsumiso daude Estatu osoan, eta horietatik 2.500 Euskal Herrikoak dira».

Patxi Leone
Intsumisosa

«AEKn ikasten dauden 2.000 ikasletik 640 subentziorik gabe utzi ditu Nafarroako Gobernuak».


Elena Etxalar
Nafarroako AEK-ko arduraduna
«Eliza katolikoaren katixima berriak homosexualak baztertzen ditu, eta kasu batzuetan heriotza zigorra onartzen du».

EHGAMeko kide batek
«Gobernuaren aurrekontuak ez du helburu argirik».

Iñaki Cabases
EAko parlamentaria

ASTEKO PERTSONAIK


Manolo Campos



Etxarri-Aranazko alkatea

Ikurrina besterik ez jartzeagatik lezarriz zioten Manolo Campos Etxarri-Aranazko alkateari 100.000 pezeta eta bi hilabeteko kartzela zigorra orain dela hilabete batzuk. Jakina denez, epaiketan euskara hutsean mintzatu zen Campos eta itzultzaileak gabe gainera, fiskala eta epaileak euskaraz ez jakin arren. Adolfo Araiz abokatuak epaia errekurritu zuen, euskaraz deklarazioa oinarritzeko eskubidea dela eta azalpenak ez ulertzean auzipetua babesik gabe geratu zela esanez. Nafarroako Epaitegiak arrazoia eman dio, eta ondorioz, epaiketa berriro egin beharko dute.

Jorge Oteiza



Eskultorea

Oteizak bere eskulturaren aurkako atentatuaren egiletzat hartzen du bere burua izeneko idazkia aurkeztu du aste honetan Orioko eskultoreak. Agiñan zuen eskulturaren aurkako atentatu aipatu ondoren, epaitegiaren deklarazioa deitu dutela dio Oteizak, «mehatxuak eta legez kontrarmak izateagatik». Bere emaztea gaixorik zegoenean gertatutako istiluak gogoratu ondoren, orduan bere abokatu izan zen Ruiz de Erentxuren aurka mintzatu da, hala nola agintarien aurka. Osasun mentalari buruzko agiria bidaltzea eskatu diotela dio Oteizak.

Beatriz Nicolay



Amina

Nafarroako aminak 106 urte bete zituen pasa den astelehian Iruñean, lorez inguratutako. Bere urtetebetzea ospatzeko goizean goiz altxatu eta mosto baso bat hartu zuen Beatriz Nicolayek. 1887an jaio zen Gasteizen eta hogeitamar urtetik hona Iruñea eta Uharte-Arakil bitarte bizi da, bere bilobekin. Duela 87 urte hil zitzaion zeukan nobio bakarra, eta geroztik ez du beste batean pentsatu. Duela lau urte hanka puskatu zitzaion, eta geroztik ohean ematen du ia egun osoa, bere urtetebetzearen egunean ahalegin txiki bat egin eta hamaiketarako altxatuta zegoen.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

Argia ikastola lagun bila


A. UNANUE / TUTERA

Duela bi aste Argia Ikastolaren Lagunen Elkartaren aurkezpenaren berri eman genuen EGUNKARIAN. Orduan esan genuenez, Tuterako ikastolari laguntza eskaintzeko prest dauden guztien topagune izateko asmoz sortu dute elkarte.

Ikastolako zuzendaritzak Erribera aldeko 30 izen ezagun elkartzea lortu du denbora gutxian. Horrela, elkarteko partaideen artean Jesus Mari Ramirez (PSN), Angel Rincon (HB) eta Martin Landa (IU) parlamentariak daude. Ikastolari laguntzeko konpromezua hartu dute, halaber, honako hauek: Leo Josue kirolaria, Esteban Orte historialaria, Luis Antonio Hualde abokatua, Jesus Markina zinegotzia, Jose Manuel Sanjuan udaltzaina, Elvira Aierra biologa, Fernando Salcedo ekologista eta Abel Casado ekonomilariak, besteak beste.

Argia Ikastolaren Lagunen Elkartean parte hartzen dutenek bazkide laguntzaile izaera dute: hilerio edo urtero kuota bat ordaintzeaz gain, ikastolaren aldeko ekimenak bultzatzeko prest egon behar dute. Kuotarentzat hiru aukera daude, norbere ahalmenaren arabera: 250, 500 edota 1.000 pezeta hilean.

Horrez gain, ikastolak 10.000 pezetako txartelak jarri ditu salgai. Gaurdaino jendearen erantzuna ezin hobea izan da, ikastolakoek bertakoek esan digute-



Erantzun ezin hobea jaso du ekimenak.

nez. Hilabete eskasean 500.000 pezeta jaso dituzte eta ikasturtea amaizterako bost milioi biltzea espero dute. Zeure aldetik ere laguntzaren bat eman nahi izanez gero, 82 51 37 telefono zenbakira dei dezakezu. Edota diru laguntza zuzen-zuzenean Lankide Aurrezki Kutxako 766.2 kontu zenbakian sartu.

Duela bederatzi urte sortua, Argia ikastolak 75 ikasle ditu

Argia Ikastolako Lagunen Elkarteko partaideek, kuota jakin bat ordaintzeaz gain, ikastolaren aldeko ekimenak bultzatzeko konpromezua hartu dute.

gaur egun. Ikasle kopuruak urtetik urtera gora egin du, baina diru beharrak maila berean hazi dira. Horrela, aurten 38 milioi pezetako gastuei egin behar die aurre. Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan, berriz, ez da Erriberako ikastolentzat dirulaguntzarik agertzen. Oraingoan, beraz, euskaltzaleen elkartasuna da Argia ikastolak aurrera egiteko duen kapital ia bakarra.

Irurita

Gomazko pala txapelketa bihar eta etzi Aranabiak antolatuta

IRURITA

Asteburuan gomazko pala txapelketa hasiko da Iruritako pilotalekuan, Aranabi kirol eta kultur taldeak antolatuta. Aurreneko txapelketa honetan 29 bikotek hartuko dute parte, Iruñerria, Baztan, Ultzama, Bortzirriak eta Malerreka aldekoak gehienak.

Pilotariak bost bikoteko bost taldetan eta lau bakarrean banatu dituzte. Talde bakoitzean aurreneko postuetan sailkatzen diren bi bikotek lehen mailako txapelketara joango dira. Gai-nontzakoek, berriz, bigarren mailan jokatu dute.

Pilota partiduak larunbat eta igandeetan jokatu dira, apirilaren arte. Behin kanporaketa fasea amaituta, lehen eta bigarren

mailako txapelketak hasiko dira. Finalerdiak maiatzaren 16 eta 17an izango dira eta hurrengo asteburuan, Iruritako besteekin batera.

Biharko partiduak arratsaldeko lauretan hasiko dira eta honako bikote hauek jokatu dute: Maritxalar-Ibarra eta Bertiz-Lakasta, Oiartzun-Diez Ulzurrun eta Estanga-Retegi, Bittor-Jaime eta Telletxea-Telletea eta, azkenik, Soto-Bidan bikotea Amorena-Irurretaren kontra.

Etzi beste lau partidu jokatuko dituzte, goizeko hamarretatik aitzina. Igandeko pilotariak: Maixin-Iturralde/Bertiz-Bertiz, Anso-Fagoaga/Iribarren-Lizarza, Zurbo-Mikel/Iraola-Urrutia eta Zilbeti-Minondo/Goñi-Jaen.

Bidasoa

Kultura eta turismoa bertatik bultzatzeko garapen proiektua

ELIZONDO

Bidasoa aldean bertako kultura eta turismoa bultzatzeko talde berria eratu dute, Bidasoa Kultur Zerbitzuak izenarekin. Ekimena Iñigo Doria, Mattari Alzuarre eta Mikel Ibarrola, Baztan, Bidasoa eta Leizarago bailaretako kirol alduradun ohieei zor zaie.

Proiektuaren eragileek azpimarratu dutenez, «historikoki, zonalde honek emigrazio handia ezagutu du. Urtetan jendeak Amerikara edota Frantziara alde egin behar izan du lan bila». Bertakoei beren sorterrian bizitzeko aukera gehiago eskaintzeko asmoz, Bidasoa Kultur Zerbitzuak-ek zonaldearen garapenerako plangintzak tajutu eta gauzatuko ditu.

Elkarte berriaren filosofia argi dago: lanpostuak sortzeko eta inguruko biztanleek bertan segituko dutela ziurtatzeko, Bidasoako baliabideak bertakoek landu behar dituzte. Mattari Alzuarren iritziz, «gure baliabideak arrazionalki eta oreka hautsi gabe ustiratzeko modu bakarra da hori». Inguruaren garapena kanpotarren esku utziz gero, bertakoen kalterako izan daitekeela uste du Alzuarrek. Bere irudiko, «lehentasuna ematen diote ahalik eta etekin handiena ateratzeari, epe laburrean gainera. Eta horrek kalte egin diezaiokie inguruari, baliabideak aurki agortzen baitituzte. Mediterraneokoan ikusi ahal izan dugu, ingurugiroa kaltetu dute diru erraza egiteko, baina bertakoari ez diote mesederik egin».



ALTSASUk, Tuterak eta Nafarroako beste hainbat herrik bezala, Arbolaren Eguna ospatu zuen igandean. Horrela, eguneko ekitaldietan parte hartu zuten hurrek zuhaitz bana landatu zuten. Altsasun, gainera, Gernikako Arbolaren aldaska bat aldatu zuten, Udaleko lorategian. Zuhaixa landatzeko erabakia udal plenoak hartu zuen, PSNren abstentzio bakarrekin, gainontzeko alderdiak ekimenaren alde agertu baitziren. Jose Manuel Goikoetxea Altsasuko alkate eta Eusko Jaurlaritzako sailburuarekin batera, Javier Pradera Bizkaiko diputatu nagusia egon zen igandeko ekitaldian.

SARTAGUDAn egin du Euskal Herriko Nekazarien Elkartek VI. Nekazal Astea, dagoeneko inguruan nahiko errotu dena. Egitaraua bete-betea iritsi da aurten. Asteartean, esate batera, fruta arbolak modu ekologikoan zer-nola hazi daitezkeen azaldu zuen Jesus Tirlak. Huescarraren mintzaldiak ehun lagun inguru bildu zituen Sartagudako Kultur Etxean. Tirlak adierazi zuenez, laborantzan ez du produktu kimikorik erabiltzen, baizik eta organikoak.



IRUÑEko Udalak elebitasunaren beharrezkotasuna kendu zuen duela astebeite egindako plenoan. UPNk aurkeztutako mozioak ezustean harrapatu zituen zinegotzi gehienak. Mozioaren ondorioz, 1987ko akordioa bertan behera utzi zuten UPN eta PSNren botoek. Akordio hari esker, Iruñeko Udala bere iragarki eta agiri guztiak euskaraz eta gaztelaraz argitaratzera behartuta zegoen. Araua, jakina, ez zen betetzen, baina orain egin dutenak ez du izenik: euren jokabidea zuzendu eta legea bete beharrean, legea kendu dute. Aurrerantzean euskarazko edota «interes handiko» ekitaldien kasuan bakarrik izango dute elebitasunaren betebeharra. Askara ere IUko zinegotzia, bozketan abstenitu egin baitzen, arazoa «sakonago» aztertu behar zuelakoan. Bejondaiela! **ERRIBERRI**ko alkate sozialista Barañoingoa bide beretik doa, zinegotzi gehienek dimisioa eskatu arren kargua ez duela utziko esan baitu. Hamaika zinegotzitik seik Javier Gil alkatearen jarduna gaitzetsi egin dute, irregulartasun anitz egin duelakoan. Esate baterako, bi soldata jaso izan ditu Gilek, zinegotzi gisa zegoekione eta alkatetzagatik.

Iruñeko Udal Ikastolak inoizko urterik gororrena bizi du aurten. Konpondu gabe dirauten betiko arazoei —toki egokiren falta Txantrean, eskaintza beti eskaeraren atzetik—, umeak biziki markatu dituen gertaera gehitu zitzaizen duela bi aste, Axularreko gela baten teilatua behera erori zitzaizenean. Izan ere, duela hamabost urte udalak sortu zuen ikastola honen ibilbidea ez da batere ohizkoa ez gozoa izan. Administrazioarekin izandako harreman txarrek zizeldu dute amaitezinezko egoera gatazkatsu bat, eta borondate politiko faltak harriz betetako ibilbide bilakatu du haur hauen eskolarizazio prozesua. Horren ondorioz, apika, desadostasunak ere nabarmen azaleratu dira ikastolaren barruan, eta egun proiektu eta helburu ezberdinak aditzen dira bertan. Hain zuzen ere, iaztik hona hiru zentroen arteko autonomi handiagorako bidea hartu dela antzeman daiteke, baina behiakako tentsio eta giro nahastuak ere gairatu direlakoan daude ikastolan.



Axular ikastolako haurrak udaletxean egon zirenean.

JOXE LACALLE

Udal ikastola: bizitza traumatikoa

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

«Estatu osoan ez dago gu bezain gaizki trataturiko beste talderik», dio Xabier Diaz Axular Ikastolako irakasleak, eta, akaso, arrazoa dauka. Duela hamabost urte sortutako ikastola honen ibilbidea, izan ere, malkarra, eta ibilera herrena izan baita. Gose grebak, teilatu eroriak, udal-tzaingoarekin arazoak, haserreak eta istiluak, eta, batez ere, administrazioaren aldetik jasotako tratua, «diskriminatzailea» haien ustetan, eta, beti ere, gatazkatsua. «Bizitza traumatikoa da ikastola honena».

Eta, ohi den ez bezala, hasierak izan ziren pozgarrienak. Dena San Fermin Ikastolako talde baten bultzatuta sortu zen, Nafarroan ikastola publikoa sortzeko asmoarekin. Hiru zutaberen gainean oinarritu behar zen, bultzatzaileen ustetan: publikoa, gestio demokratikoa eta pedagogia aurrerakoa. Egitasmo aurreratuegia, nonbait, orduko Diputazioarendako, eta ate guztiak itxita aurkitu zituzten bertan. Azkenean, beharrezko zuten babesa Udalean aurkitu zuten. «Oso Udal berezia zen garai hartakoa —azaltzen du Diazek—, eta bertan zeuden Martinez Alegria, Muez eta Urmeneta bezalako pertsonaiak. Laguntza handia eman zuten».

HEGOALDE ETA AMAIUR Ikastolaren hazkunde azkarra eta bizia izan zen, eta 4matrikulen igoera ikusgarria izan zen. Halaber, eskaerak

Iruñeko auzo guztietatik heltzen ziren, eta orduan sortu zen zentro berrietan kokatzeko beharra. Eta Hegoalde eta Amaiur sortu ziren. Gogoratu behar Udal Ikastolaren lehendabiziko leloa 'Iruñeko auzo bakoitzean zentro bana' zela, baina orduan hasiak ziren jada istiluak. «Betiko arazoa administrazioaren prebisio falta izan da. Beti ibili dira atzetik —matrikula kopurua, materialaren eskaera— eta edozein ikastetxetan ohizkoa den eskaera bat lortzeko izugarriko istiluak izan dira beti».

Prebisio falta hau bi arazo zehatzetan mamitu izan da: eskaera beti izan da eskaintza baino handiagoa, eta toki egoki baten faltan aritu da beti ikastola. Eta arazo berbera errepikatu da beti hiru ikastetxetan. Aurten, adibidez, 15 ume gelditu ziren tokirik gabe Axularren, 11 Amaiurren, eta 18 Hegoalden. Hau da, inguruko toki orotan eskaerak, nabarmen, behera egiten duen bitartean, udal ikastolak ezin zuen haur gehiago hartu. Udalak mugatua baitio gela kopurua. Irtenbideak ere desberdinak izan ziren hiru ikastetxeren artean, eta Axularrek borroka luzea mantendu zuen bitartean, haurrek Txantrean bertan tokia izan zezaten —azkenean Antsoainera joan di-

ra—, Amaiur eta Hegoalden bandu egin ziren haurrak beste ikastetxetan.

Borroka, azken urteotan, Nafarroako Gobernu eta Iruñeko Udalaren arteko gorabehera lerratu da. «Iruñeko Udalak ez du ezer egin nahi —dio Xabier Astiz Axularreko Eskola Kontseilukoak—, eta ardura Nafarroako Gobernuak hartu behar duela dio. Baina honek Txantreatik kanpo eramaten ditu haurrak, eta jendeak atzera egiten du umeak ekartzeko orduan».

Arazoak amaitezina dirudi, iaz Arturo Kanpionen beste gela berri bat paratu bazen ere, Udalak hori kentzeko bere asmoa agertu baitu duela gutxi. Horren aurrean irtenbide ezberdinak aditu daitezke hiru ikastetxetan, baina nahiko uste zabaldua dago Nafarroako Gobernuaren eskuetan behar duela izan ikastolak. «Matrikula eskaeretan, erdara behera doa Txantrean —dio Astizek—, eta euskara gora, eta eskaintza nahikoa izanez gero, gorago joango litzateke. Gure datuen arabera, bost urte barru euskarazko irakaskuntzak erdarazkoa bikoiztu lezake. Baina auzoan geratuz gero».

Amaiur ikastolako Eskola Kontseiluko den Javier Zubirik, berriz, Nafarroako Gobernuaren eskuetara igaro-

tzearen beharra azpimarratzen du. «Hiru gauzatarako: LOGSEren garapena ziurtatzeko; Eskola Maparen barruan eskaintza publikoaren barruan gaudelako; eta sare publikoak duen mailara hurbiltzeko, behetik baikara nabarmen, zentzu guztietan». Hegoaldeko zuzendaria den Iñaki Redin ere Nafarroako Gobernuak ardura hartzearen aldekoa da. «Ikastola jaio zenean, publikoa izateko asmoarekin jaio zen, eta guk horri eutsi nahi diogu. Baina ez udalpean, baizik eta Nafarroako Gobernuaren ardurapean, hori bai gure izakerarekin begirunez jokatu, beti ere».

Ibilbide honek batzuk gogortu eta besteak nekatu egin ditu, nola ez, eta tentsio une gogorrek ere bizi izan dira ikastolaren barruan. Iazko Eskola Kontseilurako hauteskundeetan bigarren zerrenda bat aurkeztu zen Axularren, eta azkenean atera ez bazen ere, desadostasun garbiak bazudela iragartzen zuen hauteskunde prozesuak. «Gurasoen artean badago tentsioa —azaltzen du Xabier Astizek—, arazo hauen aurrean oso erabaki gogorak hartu behar direlako. Eta irakasleen artean, berdin». «Haurrak oso eskolatze ezohizkoa izaten ari dira —dio Xabier Diazek— eta askotan guri ere zaila egiten zaigu langile hutsak garelako pentsatzea, hain talde berezia izanda».

Aste honetan itzuli da Axular bere sorrera ikusi zuen ikastetxera, Eunate. Hamabost urte gehiagorekin, eta istoria korapilatsua atzetik.

Matrikula eskaeretan, erdara behera doa Txantrean, eta euskara gora, eta eskaintza nahikoa izanez gero, gorago joango litzateke. **XABIER ASTIZ**

Gaua lapurtu nahian

● Antzerkigileak bere pertsonaia baten hitzetan zionez bada momentu bat gauza bakoitzarako: lan egiteko ordua, lagunekin solasaeen egoetarena, kafea hartzearena, e.a. Baina hauen artean badirudi fantasiarena, hots, amets egitearena, bukatze dagoela. Gaua hil eta akabo magia. Eguna itzaltzen denean fantasiarako tenorea pizten baita gure begi ninietan. Begiradek iluntasunaren itzaletan lhes egiten dute eta ezezagunaren erresumara eramaten gaituzte, abentura eta ametsari bidea emanez.

Gauaren tunelean sartzen garenean errealtate eta mitoaren arteko mugak hausten ditugu. Mitoa da hain zuzen ere gure bizitzari funsa emnaten diona; denok barnean eramaten dugun eromenaren galga da mito. Presio-buruaren hormak lehertzearen daudenean, egunerokotasunak aspirina irentsi edota burua makurtzera behartzen gaituenean, zirrikitu nimitio bat irekitzen da gauean eta mitoaren balbula magikotik darion adrenalinarean zurrutadaxoak onera ekartzen gaitu. Berroreka esaten diote psikiatrek. Fantasia gehienontzat. Gauaren jaun eta jabe.

Hau da, gauarekin batera, lapurtu nahi digutena: irudimena eta ametsaren aldia. Imagina al dezakezue ametsik gabeko bizitza?

Honetan dihardute bada zientifiko maltzur batzuek. Ispilu itzelak erabiliz gure ametsak akatu nahian dabilta; ez bide dituzte gogoko. Arrisksuegiak omen dira XXI. mendeko zibilizazioaren onerako pentsatzeko eta imaginatzeko ditugun ahalmenak, denbora galtze hutsalak baitira. Ez datoz bat estatistiken marra koloretsuek eskatzen dizkiguten produkzio mailekin. Beraz, komenigarriena da gure ametsekin amaitzea. Iru-dimenaren antzutasunean zo-

riontasuna kausituko dugulakoan daude.

Horretarako buruen gainetik eseki nahi dizkiguten 20 metroko diametroa duten ispilu erraldoiek, gaua egun bihurtzeko lana burutuko dute. Honelaxe eman zuten aditzera duela egun batzuk Telediaroan. Teknikaren morroi disdiratsu hauen bitartez, eguzkiaren izpiak isladatu eta, era honetan, argia aprobetxatuko lukete nahi duten eremua gauetz ere argitzeke. Lurreko zenbait tokitan eguzkia ez litzateke izkurtatuko (Ez ote zuen gauza bera pentsatu Felipe II.ak?).

Ez, ez da Julio Verne berri baten fikziozko istorioa, baizik eta bata txuriko Maquiavelok gure mesederako egindako asmakizuna. Inbentoak oso etekin mamitsuak emanen litzeki munduko zenbait nekazal eta industriaguneri. Ez dago gaizki pentsatuta, ez.

Baina orduan, noiz egin behar dugu amets egok, gauaren zain antsiatz egoten garenok? Nekez igaroko ditugu egunak hainbeste amodiozko istorioa eta grina sutsuak piztu dituzten izarrak eta ilargia ikusi ezean. Ez al da zoragarria ikustea nola marrazten diren hodeien forma zehazgabeak ilargiaren argiaren pean? Ezin izanen gara atara gure maitaleen bila iluntasunaren babes eta magia izan gabe. Ezin egin gaupasa. Ezin amestu.

Ni badaezpada ere, tiragoma erraldoi bat prestatzen ari naiz. Berarekin nire birao mingarrienak jaurtikiko ditut ea mila pusketatan hausten ditudan zorioneko ispiluak. Bitartean ez dut gaupasa bat ere galtzeko asmorik.



Pello Arana Irakaslea

zagoen interesaren erakusgarri izan ziren botazioaren kopuruak: % 60ak eman zuten botoa, eta normala % 10 izaten da. Hori dela eta, honen ondorioz, giroa franko hobetu da, eta funtzionamendua ere askoz egokiagoa da.

Orain hobeki errespetatzen da aniztasuna, botazio sistemek ezin baitute hain erabakiorrak izan: proposamenak hartu behar dira kontuan, eta ez hainbeste botoak». Aurten ez da Biltzar Nagusirik izan.

Mikel Redin Hegoaldeko zuzendaria ere ikastetxeren arteko autonomiaren aldekoa da, «beharrezkoa baitzen, funtzionamendua eraginkorra egiteko. Lehengo klustroak 70ekoak ziren, ikaragarri handiak, eta hori ez zen batere efektiboa. Egun, zentro bakoitzak badu bere proiektu kurrikularra, eta bakoitzak berea behar du». Bere usteetan, zentro bakoitzaren autonomia maila hau areagotu egingo da hemendik aurrera, «funtzionatzeko bide bakarra baita: autonomia behar-beharrezkoa da».

Autonomia gehiago izatearen ondorioz, giroa franko hobetu da, eta funtzionamendua ere askoz ere egokiagoa da. Orain hobeki errespetatzen da aniztasuna». **JAVIER ZUBIRI**



Arrosadiako Hegoalde ikastetxea.

OSKAR MONTERO

Autonomia gero eta handiagoa hiru ikastetxeen artean

A.B. / IRUÑA

Udal Ikastola Txantrean sortu zen, ikastetxe bakar batean, baina hasieratik bizirik zegoen auzo bakoitzean zentro bana eraikitzeko beharra eta asmoa. Lehendabiziko urteetako hazkuntza izugarriak berehala erakutsi zuten ikastetxe berrien beharra, eta hortik sortu ziren Amaiur Ikastola (Iturrama) eta Hegoalde Ikastola (Arrosadia), enbor bakarretik bi adaska. Harremanak beti izan ziren laxoak hiru zentroyen artean, baina iaz sortu ziren lehen istiluak, tarteko desberdintasunak azaleratu zirenean, hain zuzen ere.

Amaiur ikastetxeak hartutako erabaki baten bidez, bertako Eskola Kontseiluak ratioa—gelako ikasle kopurua— igotzea onartu

zuenen. Bi haur tokirik gabe gelditu ziren orduan, eta gela batean sartu ahal izateko, Amaiurrek 25tik 26ra igo zuen ratio hori. Orduan, hiru ikastolen arteko Kontseiluak Amaiurren behar baino ikasle gehiago zeudela esan zuen, eta horren ondorioz Iturramako ikastetxearen zuzendaritzak dimisioa aurkeztu zuen.

Horrek mikastu zuen giroa, baina hiru ikastetxeen arteko loturak eta harremanen aldaketek eragin handia izan dute azken urteotako ibilbidean. Udal Ikastola, berez, hiru ikastetxe biltzen dituen sare bat da, eta duela gutxi arte klustro bakarra zen hiru ikastetxeetarako, eta baita irakaslego berbera ere. Eguneroko bizitzak, baina, hiruen arteko desberdintasuna markatu zuen, eta autonomia handiagorako bi-

dea hartzea erabaki zen.

Oraindik gaur egun koordinazioa eta elkarlana erabatekoa da gai komunetan. Horrela, transferentzi gaitetan edota Eskola Maparen inguruan jarrerak batera eztabaidatzen dira, eta arazo berdintsuak diren kasuetan—kabinete psikopedagogioaren beharra, laguntzarako irakasleak—, bilerak ere elkarrekin egiten dituzte hiru zentroek. Hain zuzen ere, aurtengo ikaturteko matrikulazio eskaera soberazkoa zela eta, elkarrekin astebeteko etenaldia egin zuten ikastetxeek, baina garbi dago autonomia nagusitu dela iaztik hona.

BILTZAR NAGUSIA EDO KONTSEILUA

Javier Zubiri Amaiurko Eskola Kontseiluko garbi mintzo da horren inguruan. «Autonomiaren alde nago garbi, barruko bizitza garatzeko modu egokia delako». Iaz bi zerrenda aurkeztu ziren Iturramako ikastetxearen Eskola Kontseilurako, eta bien arteko ezberdintasuna gai honetan oinarritzen zen. Batzuek eskola publikoa eta Nafarroako Gobernuaren sarera pasatu beharra nabarmentzen zuten, eta baita ibilbide autonomoa ere, Eskola Kontseiluaren agindupean, beti ere. Bigarren zerrendakoek ikastola bakarra zela eta Biltzar Nagusia zela erakunde gorena zioten. Lehendabizikoek hiru hautagai atera zituzten, eta bigarrenekoek bi. «Orduko arazok sortutako bi zerrendak izan ziren haiek—dio Zubiri—, eta organo goreneko erabakiak baloratzeko orduan oso jarrera desberdinak zeuden agerian. Ikastetxearen barruan



Amaiur Ikastola.

OSKAR MONTERO

Gazteendako Zokoa

Zingira-berdantza

Emberiza schoeniclus
Arra eta emea desberdinak
Nafarroan oso urria
Neguan zelaietan



Zingiretan erruz

Txonta baten tamainakoa, arrunt desberdinak dira arra eta emea, batez ere ernalketa garaian daudenean. Arra nabarra da, eta burua eta lepoaldea beltz-beltza dauzka, marra zuri batekin. Emea, ordea, sotilagoa da, eta soilik bularraldean dituen marrak dira azpimarratzekoak. Udaberri eta udan soilik zingiretan bizi da, batez ere begetazio sobera daukatentan, baina migrazio garaian eta neguan, soro, zelai, basotxo eta abarretan ere aurki daiteke.

Martxoa du errute garaia, eta horretarako lehen pausoa arrak ematen du, bere kantuarekin. Berehala inguratuko zaizkie emeak, eta kabia hauek egiten dute, lurrean edo lurretik altuera txikian. Bertan emeak lauzpabost arrautza erruten ditu, eta 12-14 egunen ondotik ateratzen dira txorikumeak.

Hauek 12 bat egun behar dute ondo hazitzeko, eta ondoren beren kabuz aritzeko gai dira. Ondoren zaila da oso zingira-berdantzak ikusten, ederki ezkutatzen baitira begetazioaren atzetik, lumen aldaketarako.



Zaldi koloreduna

EDUARDO OZKOIDI

Bazen behin Tolosako feriara joan zen gizon herrikoi bat. Tolosako feriara leku guztietako jendea joaten zen, txit handia zen. Abereak ezezik, landareak eta zuraz egindako gauzak ere baitezkan feria horrek.

Gizon hori, hots, Anbroxio, zaldi bat erostera joan zen. Anbroxio Urritzolakoa zen, Nafarroako herri txiki batekoa, hain zuzen ere.

Joaten zen lehenengo aldia zen hura, eta harrিতa geratu zen feriarekin. Autobusa utzi bezain laister zaldiak behatzera joan zen. Ordu bat igaro ondoren, Anbroxiok nahi zuen zaldia aurkitu zuen: beltza, indartsua eta azkarrak. Zaldiak zuen prezio altua izan arren, Anbroxiok ez zuen nahi zaldirik gabe etxera bueltatu. Saltzailearen ondora iritsi bezain laister honako elkarrizketa hasi zuten:

—Asto hau ikustera etorri naiz.

—Bai! Ba, zorte ona daukazu, honako zaldiak ez baitaude prezio zoragarri honekin.

—Ez esan gezurrik, prezioa

prezioa...

—Bost mila pezeta jeitsiko dizkizut zaldi honek bikoitza baliorekin.

—Tori ba, 30 mila pezeta.

—Eskerrik asko.

—Ez horregatik. Agur!

Eta gure Anbroxio bere asto beltzarekin atera zen Urritzolarantz.

Errepidetik zihola egundoko ekaitza erori zitzaion gainean eta berebil bat pasatzean isplitutik ikusi zuen bere zaldi beltz eta indartsua nola bihurtu zen txuri, eta gainera mihia lurrean zeramala.

Etxera iristean konturatu zen zaldiak oinetako betuna zuela azpikaldean eta goikaldean zuri kaskar bat.

Anbroxiok hau ikustean berehala autobusa hartu eta Tolosarantz abiatu zen. Ferian zaldia saldu zion ijitoak aldegin zuen eta Anbroxio etxera itzuli zen ijito zikina eta bere zaldi kaskarrekin pentsatuz.

Errepidetik zioala egundoko ekaitza erori zitzaion gainean eta berebil bat pasatzerakoan Anbroxiok ikusi zuen bere zaldi beltz eta indartsua nola bihurtzen zen txuri, eta gainera mihia lurrean zeramala.

altuegia baita.

—Jar zaitetz astoaren ondoan.

—Zertarako?

—Nola doakizun ikusteko.

—Zaldia ondo doakit, baina

KAZKARROAN

O M B A T E A Z I L N O
D A O I B A R R E F O X
N R R A R R U K Z E D Ñ
O K M A A E J I K L R E
S A A E S R T O T M E A
T L N Z Z I R A U Z P U
O A P S A K G A L T I R
U I T I O L I E D E A T
O N A G R E L R P I B A
X S A T E Ñ A B I Z A Z
S E I A G A R R A Z I L
L I Z A R R U S T I N U

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Nafarroako 20 mendate nagusien izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalen irakurrita agertuko zaizkizu.

Zaharrak berri

Deus ez den tokian eskuak garbi; deus den tokian eskuak zikin.

Lapurrak direla eta.

Goizueta

—Hi, hik ba dakik zertarako dituzten japoniarrek bi zulotxo kuleroetan?

—Ez, ba...

—Hankak sartzeko, bada.

Jenero Xumekoak

Andoni eta Koldobika kontu kontari (III)

Astarloaren ustez, Koldobika, agure hitzak agur esan nahi dik, hots, bizitzari adio esan beharra dagoena, agurea. Astarloak ere esaten dik agur egur eletik heldu dela, gizakiok erre egiten garelako. Hori, Andoni, edateko beste arrazoi bat besterik ez duk. Kasualitatez Astarloa hori ez duk imirizaldukoa izanen? Hangoei asko gustatzen zaizkie horrelakoak. Eta egur elea nondik zetorrek? Eta egur elearen etimologia nondik? Lehendabizikoak Jaungoikoaren izena izan behar dik, eta Jaungoikoaren izena tigrearen marretan idatzita zegoak. Horrexegatik imirizalduko armarrigan tigre bat zegoak, Andoni.

JEREMIAS ERRO

Bizi Bizian

Nafarroako Toponimia eta Mapagintza lehendabiziko aleak argitaratu berri ditu Nafarroako Gobernuaren enkarguz horretan lanean ari den taldeak, eta bi urte barru lurralde osoko toki izenak bilduta izateko asmoa dute. Garrantzi handiko lana, hemen jasotako izenak aurrerantzean ofizialak izango baitira edozein erabilera izanda ere.

Dermioz dermio, izenez izen

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Nafarroako Toponimia eta Mapagintza lan honek 1990ean izan zuen hasiera, eta bi urte barru bukatuta izango delakoan daude egileak. Egun, dagoeneko ia Nafarroa erdia dute egina —Iruñerria, Erribera, Sakana, Gipuzkoarekin muga, Bortzi-riak, eta Erroñkari—, eta gainontzeko asko biltze prozesuan dago. Hiru helburu nagusi ditu lan honek: Nafarroako lurralde osoan erabilera bizia daukan toponimiaren altxor historiko-linguistikoa salbatzea, hizkuntz arauen arabera eta Euskaltzaindia begirale zutela behar zen moduan tratzea; lana Mapa eta argitarapenetan gauzatzea; eta kanpainan zehar bildutako materialekin fondo bat eratzea, ikertzaileen esku jartzeko.

Horretarako tokiz tokiko informatzaileak izan dira lan taldearen iturri garrantzitsuenetakoa, eta horretaz gain ordurako artxiboak eta erroldak erabili izan dira. Izan ere, taldearen esku zegoen herri bakoitzeko planoak, baina izenik apenas agertu gabe. Ortofoto batekin —hegazkinez eta eskalan egindako argazki bat— inkesta egileak tokiz toki joaten ziren, eta bertan, aurretik hitz egin zuten informatzaileekin planotan agertzen ziren hutsuneak betetzen zituzten. Informatzaileak hainbat pertsonaia izan dira, tokien arabera. «Erriberan, kasu» azaldu du Mikel Belasko egileetako batek «goardekin egin

izan dugu lan, hain eremu zabal izanda, leku izen bakar batekin izugarriko dermioa hartzen delako. Mendialdean, ordea, lurra eskuariki lantzen dituztenak izaten dira hoberenak».

Horrekin batera, iturri idatzien kontsulta izan da lan funtsezkoena, eta iturri inprimatuak eta argitaragabekoak izan dira oinarriak. Horrela, Notari Protokoloen Artxiboan lur erabilei buruzko informazioa bildu da, eta ez landu gabeko eremuei buruzkoa. Artxibo Administrazioan eta Nafarroako Artxibo Nagusian, erregeren lur ondasunak, mugei buruzkoak, monastegi, fraile eta parrokiaren lur ondasunak eta abar bildu dira. Hauetaz gain, Iruñeko Elizbarrutien Artxiboa eta Hazienda Ordezkaritzako Artxiboak ere erabili izan dira.

Lan honen garrantzia aurrerantzean toponimo ofizialak izatean datza. Izan ere, hemendik aurrera argitaratutako txosten guztietan izen hauek erabiliko dira. Horretarako hiru zatitan banatu da Nafarroako hizkuntz panorama: Nafarroa erromanizatuak, hau da, euskararen galera, inoiz mintzatu bazen, oso goiztiarra izan zena; Nafarroa euskalduna, euskaraz bizi den eremuan; eta euskaldun izandako Nafarroa. Lehendabiziko erabakia jenerikoei buruz izan zen, eta tokian tokiko tradizio eta erabilera errespetatu dira —Goizuetan 'erreka' eta 'muinoa' idatziko da, eta Tuteran 'barranco' edo 'coli-



Zelai eta soroetakoak ezezik, mendialdeko izenak ere bildu dira lan honetan.

na'—. Halaber, euskal jatorria duten toponimo orok euskarazko grafiarekin idatziko dira, eta desitxuratutako leku izenetan ere jatorrizko forma aukeratu da, «ulergarritasuna zertxobait zaildurik gertatzen bada ere». Esate baterako 'Larrubia' 'Arrobia' izango da, eta 'Cacharricos' toponimoak 'Gazarriko' izena hartuko du.

Mapa guzti hauek luze gabe hasiko dira argitaratzen, tokiz toki sailkatuak, eta besteak pixkanaka ikusiko dute argia. Bertan zazpi lagun ari dira lanean egun, bai kanpo lanean bai bulegoan: lau kide inkesta egiten aritu dira herriz herri, beste lagun bat artxiboko lana egiteaz arduratu da, idazkaria datu guztiak ordenagailuan sartzen aritu da, eta beste kide batek planoak egin ditu. Ikerketa talde honek lau espezialistaren aholkuak izan ditu eskuara.

Historia salbatzeko aukera

A.B. / IRUNEA

Nafarroa beti izan da, baita historiaurrean ere, herri, kultura eta hizkuntzen pasabide eta topaleku, eta hau nabarmen finkatuta gelditu da gaur egun arte heldu zaigun toponimian: baskoiak, zeltak, erromatar latin-ekarleak, godoak, arabeak, juduak, frankoak, nafar erromantzearen ondorek, azkenean bitariko komunitate bat sortu zen: gaztelania hizkuntza duen gehiengo bat eta euskarari eutsi dion gutxiengo bat. Liburuak, toponimiaren garrantzia azaltzeko orduan, toki izenak biltzeko egitasmo egoki batek dokumentu historiko eta kultural hori salbatzeko aukera ematen duela azaltzen du.


Hainbat saio egin dira toponimia hau biltzeko eta aurreneko

pausoak 1919-1936a bitartean izan ziren. Luis de Eleizalde Brenosa izan zen kanpainaren burutzatzailea eta Nafarroako Ondare Artistiko eta Historikoen Batzordeak, 1919an, udal guztietara zirkularra bidali zuen, «landetako dermio guzrien izen zerrendak» bidaltzeko, Euskaltzaindiak euskararen ikerketa toponimikorako erabil zezan. Lan horrek Julio Altadill eta Manuel de Irujo y Ollo izan zituen sustatzaile Nafarroan.

Gerra zibilak errotik moztu zuen hasierako saio hau, eta ondorengo ikerketak ikuspegi eta irizpide berriekin egin ziren. Joxemiel Barandiaranek moldatutako Inkesta Etnografikoa aplikatu zen herri askotan eta aldi honetako ezaugarriak izan ziren, besteak beste, bakarkako lana egitasmoak burutzean, ikerketaren metodologi irizpideetan eta helburuetan uniformitate falta, eta mapagintzari inportantzia gutxi ematea.

Azken epea, 1986 eta 1990a bitartekoa, sistematizazioarena deitzen dute txostenaren egileek. Bertan Ricardo Cierbide Martirenak garrantzi handia izan zuen, berak burutu baitzuen materialak sistemaz bildu eta argitaratzeko ideia, *Onomasticon Vasconiae* zeritzana. 1986an Euskaltzaindiak proiektua onartu eta babesa eman zion, eta orduan agertu zen Iruñerriko toponimiari buruz lehendabiziko testua.

Azken urteotako lanen artean, azpimarratzekoa da 1990ean Lizarran egin ziren Onomastika Jardunaldiak, Euskaltzaindiak antolatutak.



Landutako lurren jabeek ezagutzen dituzte hobekien toki izenak.

Mirian Lorente

..... lorazaina

Mexikoko Sierra Madren zehar 35 eguneko ibilbidea egin berri du mendi bizikleta ganean lanbidez lorazaina den iruindar honek, lagun batekin. Bidaia izugarri gogorra, 2.400 kilometrotan zehar eskorpioiak, ibili ezinezko

errepideak, indiar mesfidatiak, basamortuak, oihanak, eta ezin konta ahala pasadizo topatu ditu. Esperientzia inori gomendatzeko ez dela esaten badu ere, bertako paisaiak go-goan dauzka oraindik. Lorazain abenturazalea.

«Lagun bati ez nioke gomendatuko»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

EGUNKARIA.— Nola bururatu zitzazizuen bidaia hau egiteko ideia?

MIRIAM LORENTE.— Ibilbidea Mexikoko Sierra Madren izan zen, eta iparraldetik hegoaldera zeharkatu genuen, beti Pazifikoko Ozeanoaren ondok. Norabait joateko gogoia genuen, eta Sierra Madreko mendebaldeko zatia inor gutxi ezagutzen duen tokia da. Hain zuzen ere, ibilbide osoan zehar ez genuen hemengo jenderik ikusi, turistarik alegia.

EGUNKARIA.— Zenbat egun eman zenuten ibilbide osoa egiteko?

LORENTE.— Bidaiak, berez, bi hilabete iraun zuen, eta bizikleta ganean 35 egun izan ziren. Mexikon sartu aurretik lau egun eman genituen New Yorken, eta gero mugara joan ginen, Nogalesetik. Hortik Hermosillora autobusez, eta hor hasi ginen txirindulaz. Kilometrotan 2.400 inguru aterara dira, hau da, eguneko 70 bat, batez beste. Egun batzuetan, hala ere, 120 inguru egiten genituen.

EGUNKARIA.— Eta dena mendi bizikletaren ganean. Nola antolatzen da materiala eta horretarako behar den muntaia guztia?

LORENTE.— Erdia asfalto ganean egin genuen, eta oso material gutxi generaman. Kanpandarrak gabe, lozaku gisa kanpoko zorro bat erabiltzen genuen, baina garrantzitsuena bizikletentzako materiala zen. Kilotan, 16 kilo inguru generaman, baina ez ezazula pentsa gehiegi denik.

EGUNKARIA.— 2.300 kilometro, 35 egunetan, eta 16 kilo bizkarrean. Gogorra izango zen, ezta?

LORENTE.— Nik zazpi edo zortzi kilo gutxiago ekarri nituen, eta Enekok berdin. Eta pila bat jaten



Lanbidez lorazaina da Miriam.

OSKAR MONTERO

genuen, baina oso ahalegin gogorra zen egunerokoa. Gainera, oso elikadura txarra hartzen genuen, askotan, toki batera heltzerakoan, urik ez baitzegoen, eta Coca-Cola edo hartu behar izaten genuen. Fundamenturik gabe, alegia.

EGUNKARIA.— Sierra Madre nahiko toki isolatua da, eta toki batzuetan ez dute sekulan turista bat ikusi. Zer moduzko harremana zenuten jendearekin?

LORENTE.— Hasiñan oso gaizki, eta muga pasa bezain laister beldurtu nintzen. Batzuetan Eneko aurrerago joaten zen, eta automobilak nere ondoan gelditzen ziren. Jendea jaisten zen, eta zuten itxura ere ez zen nolana hiko: bibotea, kapela, bota altuak, pis-

tola, labana... Gainera, asko edaten dutenez, tentsio nabaria bazegoen, batzuetan kotxera igotzeko eta beraiekin joateko esaten baitzidaten. Egundak oso gaizki pasa nuen, batez ere lehendabiziko egunetan, basamortua geundenean. Han soilik goizeko 5etatik 9etara ibiltzen ginen, ordurako izugarriko be-roa egiten baitzuen. 80 bat kilometro egiten genuen, eta egun batean 120 bat ere egin genituen, baina orduan erabaki genuen erritmoa zertxobait moteltzea, azkenean egun sobera ere izango baikenituen. Hortik mendira sartu ginen, eta oso ongi. Jendea, denetarik. Adibidez, hiru egun eman genituen azienda batean, primeran portatu zen familia ba-

tekin. Hori bai, han mozorro arraroa zara, eta jendea harritzen da asko. Herrira heldu bezain laister, bertako atrakzioa zara, eta batzuetan oso ongi tratatzen gintuzten, bestetan harrira hartzen gintuzten... Zonalderik interesgarrienean, adibidez, oso herri polita aurkitu genuen, baina herrira sartzean ia ttu egin ziguten, txuriek deus ez baitzuten nahi. Justu-justu eman ziguten coca-cola bat, eta ez ziguten lo egiteko tokirik utzi. Hurrengo herriraino joan behar izan genuen.

EGUNKARIA.— Lo egiteko, dendarik gabe egiten zenuten, kanpoan?

LORENTE.— Etxea harrapatuz gero, askoz hobeto. Hango arazoa eskorpioiak ziren, izugarri

pozoitsuak baitira. Mexikarrak oso ohituratuta daude eta askotan etortzen zitzaizkigun «begira, atzo kosk egin zidan eskorpioi batek» esanez. Horren aurka zauria egin beharra zegoen, odola xurgatu, eta ondoren tornikete bat. Horregatik, beti altura batean lo egin beharra zegoen, eta esnatu ondoren, ondo astindu oinetakoak, badaezpada ere. Guzti horrek are gogorragoa egiten zuen bidaia. Egundak 40 kilometro mendate bat igotzeko behar izan genuen, eta jaisteko berdinean, baina gogorragoa oraindik. Eurria hasi zuen, eta azkenean azienda bat aurkitu genuen, eta han jarri ginen lo. Goizeko ordu bietan jabea etorri zen, erabat mozortuta, eta kamioia ubide batean sartu zuen. Ondoren, izugarriko berriketa luzea hasi zuen espainiarren konkistari buruz... alde egin ahal izan genuen arte. Beraz, arazoa ez zen bakarrik ibiltzea, baizik eta non eta norekin lo egiten zenuten.

EGUNKARIA.— Eskorpioiak, armiarmak, beldurrak... Zer ikusten diozu guzti honi? Berririo egingo zenuke?

LORENTE.— Bidaia honetan inoiz ikusi ditudan paisaiarik izugarriena ikusi ditut, eta mendizeran, Nallarizen, sekulan egin ditugun ibilbide gogorrenak topatu ditugu. Hala ere, lagun bati ez nioke gomendatuko hortik ibiltzea. Dena oihan bat bezala zen, eta azkenean amesgaiztoak eta guzti.

Inoiz helduko ote ginen galdeetzen genion gure buruari. Hala-ber, egiaztatu nahi genituen mexikarrei buruz aditutako gauza guztiak —oso gogorrak zirela eta abar—, eta egia da. Jende harrigarria da. Garbi dago inoiz egin dudana gauzarik gogorrena izan dela, eta askotan pentsatu nuen ez nuela amaituko.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERDA

